



## **ARRIGORRIAKO GAZTEGUNEA:**

EGUNGO EGOERAZ GOGOETA ETA ALDAKETA  
PROPOSAMENAK DEFINITUZ 2020

1. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

## **AURKIBIDEA**

<b>1- GALDETEGIAREN EMAITZAK .....</b>	<b>3</b>
1.1 JASOTAKO IDEIA NAGUSIAK .....	3
1.2 EMAITZAK BLOKE NAGUSIKA.....	4
A. GALDETEGIA ERANTZUN DUTENEN EZAUGARRI SOZIO-DEMOGRAFIKOAK.....	4
B. GAZTEGUNE ETA GAZTETXOKOAREN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA.....	7
C. GAZTEGUNEA ETA GAZTETXOKOA: ESPAZIOA ETA BEGIRALEAK .....	12
D. AISIALDI DENBORA .....	14
E. LOKALAK ETA LONJAK .....	17
<b>2- ELKARRIZKETEN EMAITZAK .....</b>	<b>21</b>
2.1 JASOTAKO IDEIA NAGUSIAK .....	21
2.2 EMAITZAK BLOKE NAGUSIKA.....	22
A. ZERBITZUAREKIN HARREMANA .....	22
B. ESKAINTZEN DIREN EKINTZAK.....	23
C. ESPAZIOA .....	24
D. ADIN BANAKETA ETA ESPAZIOA .....	25
E. GAZTEEN IRITZIAK JASOTZEAZ .....	26
F. AISIALDI OHITURAK.....	26
G. GAZTE LOKALAK ETA LONJAK .....	27

# **1- GALDETEGIAREN EMAITZAK**

## **1.1 JASOTAKO IDEIA NAGUSIAK**

- Herriko nerabe eta gazte ia guztiek (%90) ezagutzen dute Gazteguna eta gehienak (%80) inoiz bertan izan dira. Hala ere, erabilera askoz txikiagoa da, hamarretik bakarrak erabiltzen du egunerokoan.
- Abusuko Gaztetxokoaren ezagutza eta erabilera Gazteguneara baino txikiagoa da, eta 6,4ko balorazioa jasotzen du Abusuko nerabeen artean.
- Begiraleei dagokionez, gehiengoak uste du ekintza interesgarriak antolatzen dituztela eta maila txikiagoan bada ere erabiltzaileen iritziak ere entzuteko saiakera egiten dutela. Gazteguna gehiago erabiltzen duten nerabe eta gazteek begiraleen beharizan gehiago somatzen dute, Gazteguna erabiltzen ez dutenak baino. Hauek, begiralerik gabeko espazioa nahiago lukete.
- Adinean gora egin ahala garrantzia handiagoa ematen diote "adinaren arabera banatutako espazioak" izateari eta "begiralerik gabeko espazioa bat" izateari.
- Gazteak kalean pasatzen dute denbora librea orokorrean, hala ere, lagun-en etxean eta inguruko herrietara joateko ohitura ere badaukate.
- Kuadrillako lagunekin egoten dira gehienbat gazteak, eta noizean behin beste lagun batzuekin. Beste gazte batzuk ezagutzeko edota haiekin ibiltzeko nahia handiagoa da teoriarik, praktikan gertatzen dena baino.
- Hamar gaztetatik batek (%12,6) dauka lonja edo lokal bat, baina hamarretik seik (%60,7) izan nahiko luke. Lagunekin nahi dutenean erabiltzeko espazio bat eta eguraldi txarretik babesteko gunea dela azpimarratzen dute.


## **1.2 EMAITZAK BLOKE NAGUSIKA**

### **A. GALDETEGIA ERANTZUN DUTENEN EZAUGARRI SOZIO-DEMOGRAFIKOAK**

- **Guztira 450** nerabe eta gaztek erantzun dute galdetegia. Galdetegia erantzun duten gazteak adinenaren arabera banatuta, 11 eta 12 urte artean dituzte %29,6ak; 13 eta 14 urte artean dituzte %38ak, eta 15 eta 20 urte artean %32,4ak.
- **Generoari dagokionez**, mutilak izan dira %49,1a, neskek %48,9a eta ez binarioa %2a.
- Nerabe eta gazteen **bizilekuari** so eginda, %81,3a Arrigorriagako herrigunean bizi da, %4,9a Abusun, eta %11,3a inguruko auzo edota herrietakoak dira.
- Galdetegia erantzun duten gazteen %77,8ak Arrigorriaga Institutuan BHI ikasten du eta %18,9ak Arrigorriagako eskola publikoan


#### **Zenbat urte dituzu?**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido
11 eta 12 urte artean	133	29,6%	29,6%
13 eta 14 urte artean	171	38,0%	38,0%
15 eta 20 urte artean	146	32,4%	32,4%
<b>Totala</b>	<b>450</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>




**Generoa**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Mutila	221	49,1
Neska	220	48,9
Ez binarioa	9	2,0
<b>Total</b>	<b>450</b>	<b>100,0</b>


**Arrigorriagan non bizi zara?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Erdigunean	366	81,3
Abusun	22	4,9
Inguruan	51	11,3
Zehaztu gabe	11	2,4
<b>Total</b>	<b>450</b>	<b>100,0</b>



**Zein ikastetxetan ikasten duzu?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Arrigorriagako eskola publikoa	85	18,9
Arrigorriaga Institutua BHI	350	77,8
Beste bat	15	3,3
<b>Total</b>	<b>450</b>	<b>100,0</b>


**Zein ikastetxetan ikasten duzu?**

## **B. GAZTEGUNE ETA GAZTETXOKOAREN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA**


- **Gaztegunearen ezagutza:** Mutil eta nesken artean ezagutza antzekoa, %90 inguruan. 10 gaztetik 9ik ezagutzen dute Gaztegunea. Eta 12 urtetik 20 urte arte portzentaia berdina da.
- **Gaztetxokoaren ezagutza:** Abusuko kasuan, galdetegia erantzun duten %80ak ez du ezagutzen, eta Abusukoen % 36,4ak ezagutzen du. sexu eta adinaren arabera ez dago alde nabarmenik.
- **Erabilera:** Neskak mutilak baino gehiago joan direla diote, %86,4a nesken kasuan eta %78,7a mutilenean. Adinaren arabera, 11 eta 12 urte artekoak gainontzekoak baino zertxobait gutxiago joan direla dirudi (%74,4a), eta honen azalpena izan daiteke, 11 urteko nerabeen parte batek ez duelako oraindik Gaztegunean sartzeko nahikoa adin.
- Askotan joaten direnen artean mutilak dira gehiago %14,4a, nesken %7,3aren aurrean.
- Adinaren arabera esanguratsua: Gaztegunera askotan joaten direnen nerabeen portzentaia 12 urte egin ostean asko jaisten da, %24,2tik %7,6ra, eta 14 urte ostean %5,4ra. Batzuetan joaten direnekin ere dinamika bera errepikatzen da, pausatuagoa. Eta joateari utzi ziotenen artean alderantzizkoa, 15 eta 20 urte arteko 10etik 9ik utzi zioten joateari.
- **Ez joateko arrazoiak:** lagunekin kalean hobeto pasatzen dutelako hautatu du %60,2ak. Ondoren, lagunak joateari utzi diotelako %41,9ak eta aspertu egiten zirelako %39,5ak.
- Nesken artean txikiagoekin ez egoteko arrazoiak indar handiago du mutilen artean baino, mutilen %16,6ak aukeratu du, nesken kasuan, %31,3ak.
- **Gaztegunearen balorazioa:** 5,8ko batezbesteko "nota" ematen diote Gazteguneari. Adinean gora egin ahala Gazteguneari balorazioa jaisten da, 11 eta 12 urtekoen batezbestekoa 7koa izanik.
- **Gaztetxokoaren balorazioa:** 3,5eko batezbesteko "nota" ematen diote. Abusuko nerabeak soilik aintzat hartuta batezbesteko nota 6,5ekoa litzake.

**Ezagutzen duzu Gaztegunea?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Bai	403	89,6
Ez	36	8,0
Ez dakit	5	1,1
Ez dut erantzun nahi	6	1,3
<b>Total</b>	<b>450</b>	<b>100,0</b>

**Ezagutzen duzu Gaztegunea?****Eta, Abusuko Gaztetxokoa ezagutzen duzu?**


	Frecuencia	Porcentaje válido
Bai	55	12,2
Ez	364	80,9
Ez dakit	25	5,6
Ez dut erantzun nahi	6	1,3
<b>Total</b>	<b>450</b>	<b>100,0</b>

**Ezagutzen duzu Abusuko Gaztetxokoa?**




**Joan zara inoiz Gaztegunera edo Gaztetxokora?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Bai	371	82,4
Ez	74	16,4
Ez dakit	2	0,4
Ez dut erantzun nahi	3	0,7
<b>Total</b>	<b>450</b>	<b>100,0</b>


**Joan zara inoiz Gaztegunera edo Gaztetxokora?****Gaur egun joateko ohitura daukazu?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Bai askotan joaten naiz	42	11,3
Batzuetan soilik joaten naiz	79	21,2
Ez, utzi nion joateari	251	67,5
<b>Total</b>	<b>372</b>	<b>100,0</b>


**Gaur egun joateko ohitura daukazu?**

**Zergatik utzi zenion joateari?**

	Bai
Nire lagunak ez zirelako joaten.	41,9
Ez nituelako oso gustuko bertan egiten diren gauzak	26,8
Ni baino txikiagoekin ez nuelako egon nahi.	24,7
Aspertu egiten nintzelako.	39,5
Lagunekin kalean hobeto pasatzen dudalako.	60,2
Ezin dugulako nahi duguna egin bertan.	26,2


**Zergatik utzi zenion joateari?****Nola baloratuko zenuke Gaztegunea?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
1	42	9,3
2	26	5,8
3	21	4,7
4	34	7,6
5	53	11,8
6	69	15,3
7	90	20,0
8	50	11,1
9	39	8,7
10	26	5,8
<b>Total</b>	<b>450</b>	<b>100,0</b>

**Nola baloratuko zenuke Gaztegunea?**

**Nola baloratuko zenuke Gaztetxokoa?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
1	216	48,0
2	12	2,7
3	23	5,1
4	10	2,2
5	75	16,7
6	34	7,6
7	28	6,2
8	24	5,3
9	16	3,6
10	12	2,7
<b>Total</b>	<b>450</b>	<b>100,0</b>

**Nola baloratuko zenuke Gaztetxokoa**


### **C. GAZTEGUNEA ETA GAZTETXOKOA: ESPAZIOA ETA BEGIRALEAK**

- **Espazioa:** Gazteen %53,8ak uste du Gaztegunea espazio aldetik nahiko egokia dela eta %20,2ak dio oso egokia dela. Ez oso egokia edo desegokia dela pentsatzen du gazteen %26,1ak. GAZTETXOKOAREN EMAITZETAN ANTZEKOTASUNAK AGERI DIRA.
- **Begiraleak:** Gazteen %42,2ak uste du begiraleak ekintza interesgarriak egiten saiatzen direla askotan, eta %25,8ak beti edo ia beti saiatzen direla. Gazteen proposamenak entzuten dituzten galdetuta ere, gazteen erdiak uste du baietz, askotan edo ia beti %51,6ak, eta gutxitan %17,7ak. Begiraleen beharrianaren aurrean, iritzi banaketa dagoela esan daiteke: %7a da beti edo ia beti egon beharko luketenen aldekoa. %17,5a inoiz ez luketela egon behar, eta tartean, askotan %24,5ak eta gutxitan %22,3ak. Gazteguneko erabiltzaileen artean galdetuta iritzia bestelakoa da, hirutik bik uste du begiraleak beti edo askotan egon beharko luketela.
- **Gaztegunek zer beharko lukeen** galdetuta, 11 eta 12 urteko nerabeek gutxien hautatu duten aukera "begiralerik gabeko espazioa bat" izan da. "Bideo-jokoetan jolasteko aukera" aukera balioan jartzen dute nerabeek eta, mutilek (%71,3) gehiago, neskek (%41) baino. Gero eta helduagoak garrantzia handiagoa ematen diote "adinaren arabera banatutako espazioak" izateari eta "begiralerik gabeko espazioa bat" izateari.

#### **Gaztegunea espazio aldetik egokia dela uste duzu?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Oso egokia	75	20,2
Nahiko egokia	200	53,8
Ez oso egokia	81	21,8
Desegokia	16	4,3
<b>Total</b>	<b>372</b>	<b>100,0</b>


#### **Gaztegunea espazio aldetik egokia dela uste duzu?**



### Eta Gaztetxokoa espazio aldetik egokia dela uste duzu?

	Frecuencia	Porcentaje válido
Oso egokia	45	12,1
Nahiko egokia	169	45,4
Ez oso egokia	80	21,5
Desegokia	78	21,0
<b>Total</b>	<b>372</b>	<b>100,0</b>


### Gaztetxokoa espazio aldetik egokia dela uste duzu?



### Gazteguneko begiraleak...

	Beti edo ia beti	Askotan	Gutxitan	Inoiz ez	Ez dakit	Ez dut erantzun nahi
Ekintza interesgarriak egiten saiatzen dira	25,8	42,2	9,9	4,6	12,4	5,1
Gazteen proposamenak entzuten dituzte	22,0	2,6	17,7	9,1	16,7	4,8
Beharrezkoa da bertan egotea	7,0	24,5	22,3	17,5	19,1	9,7

### Gazteguneko begiraleak...



**D. AISIALDI DENBORA**

- **Denbora librean** lagunekin egoteko tokiez galdetuta "kalea" kokatzen dute lehen postuetan nerabe eta gazteen %95,3ak. Ondoren nabarmentzen dira "lagunen etxean", eta Arrigorriaga inguruko herri batera joatea ere.
- Galdetegia erantzun duten gazteen ia erdiak, %48,4, beti edo ia beti bere **kuadrillakoekin** ateratzen da. %29,4ak dio noizean behin beste lagun batzuekin ere ibiltzen dela, eta %6,7a da gehienetan kuadrillakoekin ibiltzen ez dena.
- Gehiengoak uste du ona dela gazteak kuadrillen artean **gehiago nahastatzea** %43,5. %16,1a da soilik kuadrillakoekin gusturago sentitzen dena.


**Zure denbora librean lagunekin non egoten zinen normalean?**

	1	2	3	4	5	6
Kalean	79,8	15,5	3,2	0,9		0,6
Gaztegunea edo Gaztetxokoa	17,5	13,2	14,9	15,8	10,5	28,1
Lokala edo lonja	13,3	12,2	8,2	15,3	30,6	20,4
Taberna	7,0	10,0	18,0	27,0	26,0	12,0
Lagun baten etxean	13,4	46,5	26,7	10,5	1,7	1,2
Beste herri batera joan ohi gara (Bilbo, Basauri, Galdakao...)	23,2	26,8	31,0	10,7	4,2	4,2

**Beste kuadrilla batzuetako gazteekin ateratzeko ohitura duzu?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Beti edo ia beti nire kuadrillakoekin ibiltzen naiz	209	48,4
Nire kuadrillakoak ez diren lagunekin ere ibiltzen naiz, noizean behin.	127	29,4
Nire kuadrillakoak ez diren lagunekin ere ibiltzen naiz, gehienetan.	29	6,7
Ez dakit	31	7,2
Ez dut erantzun nahi	36	8,3
<b>Total</b>	<b>432</b>	<b>100,0</b>


**Beste kuadrilla batzuetako gazteekin ateratzeko ohitura duzu?**



**Uste duzu ona dela kuadrillen artean gazteak gehiago nahastea?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Bai, jende gehiago ezagutzen duzulako	186	43,5
Ez, nire kuadrillakoekin gusturago sentitzen naiz	69	16,1
Batzuetan bai, eta besteetan ez	130	30,4
Ez dakit	27	6,3
Ez dut erantzun nahi	16	3,7
<b>Total</b>	<b>428</b>	<b>100,0</b>

**Uste duzu ona dela kuadrillen artean gazteak gehiago nahastea?**






**E. LOKALAK ETA LONJAK**


- **Lokal eta lonjak:** Galdetegia erantzun duten nerabe eta gazteen %78,9ak ez dauka lokal edo lonjarik. %12,6a da baietz erantzun du. Halabaina, lokal edo lonja izan nahiko luketen galdetuta, %60,7ak dio baietz, eta %23,4a da ezetz dioena.
- **Lokal eta lonjak zergatik** dituzten gustuko galdetuta, gehien hautatutako erantzunak dira kalean hotza edo euria egiten duenean leku aproposa delako (%66) eta nahi dutenean joateko aukera dutelako (%62,6).
- **Gazteguna ez erabiltzeko arrazoien** artean azpimarragarrienak dira lagunekin kalean hobeto pasatzen dutela, eta lagunak joateari utzi diotelako.

**Baduzu gazte lokal edo lonjarik?**


	Frecuencia	Porcentaje válido
Bai	53	12,6
Ez	333	78,9
Ez dakit	20	4,7
Ez dut erantzun nahi	16	3,8
<b>Total</b>	<b>422</b>	<b>100,0</b>

**Eta lokala edo lonjarik izan nahiko zenuke?**

	Frecuencia	Porcentaje válido
Bai	215	60,7
Ez	83	23,4
Ez dakit	43	12,1
Ez dut erantzun nahi	13	3,7
<b>Total</b>	<b>354</b>	<b>100,0</b>




		Recuento	%
<b>Zer nahiko zenuke Gazteguneak izatea (galdera anitza)</b>	Aktibitate dibertigarriagoak	153	35,7
	Bideo jokoetan jolasteko aukera	238	55,6
	Adinaren arabera banatutako espazioak	190	44,4
	Begiralerik gabeko espazio bat	147	34,3
	Ordutegi zabalagoa	164	38,3
	Gazteok ekintzak antolatzeko aukera	148	34,6
	Sukaldea	122	28,5
	Beste bat	32	7,5




Zergatik duzu gustuko gazte lokala edo lonja? (aukera anitza)			
Nahi dudanean joateko aukera dudalako	243	62,6	
Kalean hotza edo euria egiten duenean leku aproposa delako	256	66,0	
Nik nahi dudan lagunekin egoteko aukera dudalako	180	46,4	
Inork kontrolatzen ez didalako bertan	163	42,0	
Bideo-jokoetan jolasteko aukera dudalako	122	31,4	
Beste bat	49	12,6	

## ZERGATIK DUZU GUSTOKO GAZTE LOKALA EDO LONJA?



<b>Gaztegunera ez joateko arrazoiak (aukera anitza)</b>			
	Nire lagunak ez zirelako joaten.	139	41,9
	Ez nituelako oso gustoko bertan egiten diren gauzak	89	26,8
	Ni baino txikiagoekin ez nuelako egon nahi.	82	24,7
	Aspertu egiten nintzelako.	131	39,5
	Lagunekin kalean hobeto pasatzen dudalako.	200	60,2
	Ezin dugulako nahi duguna egin bertan.	87	26,2
	Beste bat	42	12,7

### Zein da Gaztegunera ez joateko arrazoiak?



## **2- ELKARRIZKETA EMAITZAK**

### **2.1 JASOTAKO IDEIA NAGUSIAK**

- Orokorrean, Gaztegunera sartzeko aukera duten adinean hurbiltzen dira nerabeak bertara, gehienetan kuadrillan, eta urte erdi edo bi urteko zikloa bete ostean aldentzen hasten dira. Hala ere, salbuespenak ere aurkitu dira, Gaztegunearekin lotura handia erakusten duten "bertako" lagun taldeak.
- Gaztegunean burutzen diren ekintzak gogoko dituzte nerabe eta gazteek, azpimarragarrienak irteerak izan ohi dira. Hauekin lotuta, gazteek uste dute lehentasuna izateko irizpideak aldatu behar direla: herrikoa izatea baino garrantzi handiagoa izan behar duela zerbitzua bera iraunkorki erabiltzea.
- Gaztegunea espazio bezala egokia dela uste dute gazteek, hala ere, espazioa handiagotu edo hobe aprobetxatzeko aukera azaleratzen da. Bi aukera baloratzen dituzte, lehenengoa, egungo gelen banaketa eta erabilera moldatzeko aukera, erabilera gutxi duten gelak aisialdirako ahalbidetuz; eta bigarrenik, goiko solairua aprobetxatzeko neurriak hartuz. Gaztetxokoari dagokionez txikiegia dela uste dute, moldatzen direla baina handiagoa izateak aukera asko zabaldu ditzakela.
- Gaur egun Gaztegunearen erabiltzaileen gehiengoa 12-13 urte artekoa da, nahiz eta adin nagusiagoko bakan batzuk ere parte hartzen duten. Guztiak espazio berbera partekatzen dute, eta helduagoak direnak, adinez gazteagoak direnak "umetzat" jotzen dituzte. Belaunalditik belaunaldira dagoen aldaketa handia da nerabezaroan. Hori dela eta, espazio ezberdinak sortzeko aukera ez dute baztertzen, hala ere, hainbat zalantza sortzen dira haien erabilgarritasunean, ez dute argi ikusten bereziki nagusien beharrianak asetzeko lain izango den.
- Ez da ohikoa gazteei galdetzea eta haien iritzia aintzat hartzea. Horrela bizi dute nerabe eta gazteek, hortaz, begi onez ikusten dute galdetegia betetzea eta elkarrizketak egitea. Egin daitezkeen aldaketekin eszeptiko ageri dira, bereziki begiraleak mantentzea nahiko lukete.
- Asteaz zehar ez dute lagunekin aisialdi denborarik partekatzen eskolan edo eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan harramantzen dira gazteak. Asteburuetan izaten dute lagunekin aisialdiaz goatzeko tarteak. Eta orokorrean eguraldia Gaztegunera gerturatzeko faktore garrantzitsua izaten da.

- Lonja eta lokalen fenomenoari dagokionez, 15 urtetik gora nabari da lonja edota lokal baten beharra daukatela gazteek. Espazio askeak eta intimoak bilatzen dituzte, haiek bertan aske sentituko direnak kontrolik gabeak baino, konfiantza handiko pertsonez inguratuak. Lokalen prezioa da sarbidea mugatzen duen faktore garrantzitsuena.

## **2.2 EMAITZAK BLOKE NAGUSIKA**

### **A. ZERBITZUAREKIN HARREMANA**

- Gaztegunea egunerokoan erabiltzen duten gazte elkarrizketatuek lotura handia erakusten dute Gaztegunearikiko. Bertan ezagututako lagun taldearekin pasatzen dute aisialdia eta batez ere asteburuetan erabiltzen dute Gaztegunea.
- Orokorrean 11 edo 12 urterekin sartzen dira Gaztegunea, hori baita sarbidea izateko eskatzen den baldintza. Posible balitz lehenago ere sartuko liratekeela azpimarratzen dute gazteek.
- Gaztegunera edo Gaztetxokora nola gerturatu diren galdetuta esperientzia ezberdinak ageri dira, adin nagusiagoko lagunak edo anai arrebak bultzatutako kasuak aipatzen dituzte, lagunak egiteko gurasoek proposatutakoen adibideak ageri dira eta baita ere, eta laguntza psikologikoa eman dien pertsonal aholkatuta ere.
- Gazteguneko zikloa orokorrean urte eta erdi eta bi urte artekoa izan ohi da. Kuadrillan joan eta kuadrillarekin batera ateratzen dira Gazteguneko dinamikatik gazteak. Normalean, belaunaldi gazteagoak sartzen diren heinean ez dira eroso sentitzen eta aldendu egiten dira. Hala ere, badaude luzarago gelditzen direnak, eta 13, 14, 15 edota 16 urterekin joaten direnak. Horien kasuan, Gaztegunean bertan egindako lagunekin ibiltzen dira eta hortaz, haien espazio natural gisa ulertzen dute Gaztegunea.
- Gaztegunea erabiltzeari uzteko arrazoien artean begiraleen presentzia eta belaunaldi gazteagoekin komodo sentitzen ez direla azpimarratzen dute gazteek.

## **B. ESKAINTZEN DIREN EKINTZAK**

- Orokorrean hiru jarduera mota bereizten dituzte gazteek: Gazteguneko denbora libre eta bertako jolasak, antolatutako tailerrak, eta antolatutako irteerak. Horien artean, irteerak dira atxikimendu gehien duten jarduerak eta Gaztegunera hurbiltzen ez diren nerabe eta gazteak ere erakartzen dituzte. Tailerrak oso ongi baloratzen dira, anitzak eta ongi prestatuak izan ohi direlako, begiraleen papera azpimarratzen dute.
- Sukaldaritza behin eta berriz ateratzen den gaia da, bereziki adinean gora egiten dutenak gogoko dituzte sukaldearekin lotutako ekintzak. Horrekin lotuta, espazio eta azpiegitura hobegoekin aukerak areagotuko liratekela uste dute.
- Hainbat gaztek uste dute tailerrak egiten diren bitartean Gaztegunea erabilgarri egon beharko litzakela tailerretan parte hartu nahi ez duen nerabe eta gazteentzat.
- Gaztegunean ez dago bideo-jokoetan jolasteko aukerarik. Honen inguruan Gaztegunea erabiltzen duten nerabe eta gazteek iritzi diote, hobe dela horrela, nahiz eta gustuko dutela onartu, uste dute bertako giroa, harremanak, dinamikak... baldintzatuko liratekeela. Bideojokoetan jolasteko aukera nerabe eta gazte askok ere eskatzen dute.
- Orokorrean Gaztegunean bizi duten "askatasuna" eta "arauen" arteko oreka egokitzat jotzen dute. Begiraleekin dagoen harremana oso ona dela adierazten dute, noizean behin gatazkak izaten diren arren. Beste batzuk aldiz, askatasun gehiago nahiko lukete, begiraleak ez egotea horren gainean.
- Irteerak: Hobekien baloratzen diren ekintzak dira, eta kalitatearen eta prezioaren arteko harremana oso ona dela uste dute. Gehieneko aforo bat egoten da, eta batzuetan bete egiten dira plazak. Kasu horietan zozketa egiten da irteerarako eta tailerretarako izen emate ordena hartzen da kontuan. Tailerretan gehiago parte hartzen dutenak irteeretara joateko probabilitate handiagoa izaten dute. Jende asko dago tailerretan parte hartzen ez duena, Gaztegunera joaten ez dena, baina irteerak gustuko dituztenak eta apuntatzen direnak. Ez dute ikusten ongi Gaztegunera joaten ez den jendeak irteeretara joateko aukera bera izatea, bereziki, inguruko herrietako nerabeak (Gaztegunera joaten direnak) plaza gabe gelditzen direlako. Uste dute Gaztegunera joaten direnak lehentasuna izan beharko luketela. Bertan sortzen den taldean "kanpoko" jendea ere egon daitekela aintzat hartu behar da. Abusuko nerabe eta gazteek ildo beretik iritzi diote irteeren balorazio ona egiten dute. Baina arazo bat azalerraten dute: Abusu eta Arrigorriagako gazteen arteko harremana irteeretan soilik ematen da, irteeretatik ezagutzen dira, hori dela eta ez dute harreman esturik garatzen. Irteeretan parte hartzeko herriko izatea lehenesten da, baina ez dago auzoen arteko kuotarik edo

beste baldintzarik. Hori dela eta, gertatu izan da Abusuko Gaztetxokoan parte hartzen duten nerabe guztietatik bakarra hautatzea, eta honek egoera inkomodoa sortu du. Arrotza zaien inguru bati bakarrik aurre egin baino nahiago izaten dute irteerara ez joan.

- Honekin batera azaleratzen da "bertako" eta "kanpokoan" artean egiten den bereizketa irteeretan parte hartzeko. Badaude inguruko herrietako nerabeak Gaztetxokoan parte hartzen dutenak eta irteeretan parte hartzeko aukera mugatua ikusten dutenak. Honek aldi berean, talde berdinean pribilegioak sortzen ditu.
- Gaztetxoko ordutegiari dagokionez azken aldian aldaketak izan dira eta ordutegia murriztu dela diote. Nerabe eta gazteak ez daude ados, uste dute ordutegi zabalagoa behar duela Gaztetxokoak, lehenago ireki eta beranduago itxi. Lehen 17:00-20:00 artekoa zen zerbitzua, orain praktikan 17:30-19:30 izaten da.
- Gazteek proposatzen dituzten ekintza batzuk: abentura tailerrak, bidaiak (irteerak), txapelketak (pinpon eta futbolin, billar, dantza...), asteburu guztietan irteera bat egotea mendira joateko eta udan mendira joatea eta akanpatzea, irteera eskiatzera, bideojokoetan aritzeko aukera, feminismoaren inguruko hitzaldiak, sukaldaritza, zinema tailerra, pelikula bat ikusi eta horri buruz hitz egiteko denbora izan gero...

### **C. ESPAZIOA**

- Gaztegunearen kokapena egokia dela uste dute nerabe eta gazteek, pixka bat aparte badago ere, tokia oso ona dela diote.
- Batzuetan txikia gelditzen dela uste dute, bereziki neguan hotza egiten duenean.
- Bigarren pisua: Bigarren pisua erabiltzea beharrezkoa dela uste dute elkarrizketatutako gazte batzuk. Biltegi bezala erabiltzen da gaur egun eta desaprobatua dagoela uste da, eta ez dute baimenik bertara joateko. Onartzen dute ere espazioak ez dituela aukera asko ematen, bere ezaugarriengatik, limitatua da. Goiko espazioa beste funtzio batzuk betetzeko gune bezala irudikatzen dute, "egoteko tokia" edo jolas mota ezberdinekin.
- Goiko pisuan sabaia jarri eta espazioa handiagotzeko proiektua: Diote sabaia altua izateak Gazteguneari ematen diola handiagoa izatearen sententzia, eta sabaia jarriz gero txikiagoa geldituko litzateke. Gainera, jendea kontrolatzeko zailtasunak egon daitezke.



Ondo egon daiteke, espazio berria izateak gune intimoagoak edo zarata gabeko tokiak sortzea ahalbidetu dezake. hobeto aprobetxatu daiteke lekua horrela.

- Gelen erabileraz: Uste dute espazio batzuk gutxiegi erabiltzen direla, esaterako bilera gelak., beraz hor zerbait egin daitekeela iritzi diote. Bulegoa ere gutxi erabiltzen dela ikusten dute.
- Espazioen banaketaz: neskak espazio propio bat izateko aukera proposatzen da, emakumeek haienezako konfiantzazko gune bat sor dezaten eta iritzi edo zalantzak partekatu ditzaten. "Adibidez: hilekoa jaitsi zaidala kontatu nahi badut neskei kontatu nahi diet eta ez badut nahi mutilak jakitea.
- Gaztetxoko nerabeek uste dute Arrigorriagako Gaztegunek aukera gehiago ematen dituela, eta gainera eraikina soilik Gaztegunera bideratzen dela. Abusukoan beste gauza asko ere egiten dira, eta batzuetan ekintzak baldintzatzen ditu horrek ere (zaratak...). Bereziki espazio handiagoa botatzen dute faltan, bertan jolas edo aukera gehiago izateko.
- Espazioari dagokionez, Gaztetxokoaren espazioa txikia dela diote. Handiagoa izan beharko litzatekela uste da, tailerrak mugatzen dira, mugimendua mugatzen da... handitzeko aukera agian herriko lonja batean kokatzea izan daitekeela diote.

#### **D. ADIN BANAKETA ETA ESPAZIOA**

- Gaztegunearen adin tarte praktikan 12 eta 35 urte arteko bada ere, orokorrean elkarrizketatutako nerabeek 12 eta 17 urte artean kokatzen dute tarteak. Hala ere azpimarratzen dute 12 eta 13 urtekoak direla gehien erabiltzen dutenak.
- Espazio partekatzeak jende berria ezagutzea ekartzen du eta ongi baloratzen dute. Nagusiagoak ezagutzen dituzte. Adierazten dute Gaztegunean harremana egiten dela, nahiz eta gero kalean ez duten harreman hori mantentzen. Era batera esateko, Gaztegunean, errazagoa harremanak egitea.
- Kuadrilla edo afinitatearen arabeko taldeak egiten dira Gaztegunean. Batzuetan nahastatzen direla diote eta beste batzuetan ez. Helduagoak direnak gazteagoekin harreman gutxi daukatela diote, txikiak dira "son unos niños".

- Adinaren arabera espazio bananduak sortzeko aukeraren aurrean aldeko iritzia jaso dira, hala ere ez dago soluzio edo adostasunik proposamen jakin batekin. 15 urteko elkarrizketatuek diote, gustatuko litzaiekela espazio berezitu bat izatea. Hala ere azpimarratzen dute, hasi berrien gainean begiraleak egotea beharrezkoa dela bestela gatazkak egongo direla. Beraiek, urteak daramatzatela egoki ikusten dute. Aukerak: gela bat erabili daiteke. Irudikatzen dute, erdia egoteko toki bat bezala "puff" eta horrelakoekin. Eta beste erdia, jolas ezberdinekin. Uste dute, ez dela beharrezkoa begiraleak gunen horretan haien gainean egotea, baina noizean behin ikuskatzea bai. Arriskuak: norbaitek materiala gaizki erabiltzea, hala ere, beraiek (zaharrenak) batzuetan "begirale" rola ere egiten dutela azpimarratzen dute, eta gustuko dute. 15 urtetik gorako elkarrizketatuek zalantza egiten dute proposamenarekin, uste dute, nagusiagoak askatasuna bilatzen dutela, kontrolik gabeko gunek nahi dituztela. Hortaz, ondorioztatzen dute helduagoentzako espazioa sortu daitekeela bainaagian ez dela erabiliko, ez delako kontrolatu gabeko gunea izango.
- Gaztetxokoko elkarrizketatuek diote adin tartea nahastatzea ondo dagoela baina muga batzuekin. 14tik beherakoak ikusten dituzte espazio berean, baina adin horretatik gorakoak ez dute espazio bera partekatuko. 15 urtetik gorakoak beste zerbait bilatzen dutelako, kuadrillakoekin ibiltzea, kalean...

### **E. GAZTEEN IRITZIAK JASOTZEAZ**

- Ongi deritzote gazteei galdetzea Gaztegunearen inguruan, eta aldaketak egiten badira haiekin kontrastatuak behar dutela adierazten dute. Begiralerik aldatzea ez dutela nahi adierazten dute, haiekin sortutako harremanak pisua handia duela ikusten da.
- Orokorrean ez zaiela galdetu izan diote gazteek, tailerren ondoren burutzen diren ebaluaketa fitxek gain. Gazte guztiei galdetzea ongi ikusten dute baina erabiltzaileen iritzia hartu behar dela kontuan uste dute, haiek baitira egunerokoan joaten direnak eta ezagutzen dutenak

### **F. AISIALDI OHITURAK**

- Nerabe eta gazteen aisialdi denboran bi joera ezberdin nabari dira adin tarte guztietan. Lehenik, astean zeharrekoa, eskolatik ateratzean agenda betea izan ohi dute eskolaz kanpoko jarduekin eta nahiko arraroa da aisialdi tartea lagunekin ematea, izatekotan etxean pasatzen dituzte. Bigarrenik, asteburuetakoa, hemen bai lagunkin pasatzen dute aisialdi denbora.

- Adin guztietako nerabe eta gazteek azpimarratzen dute eguraldia Gaztegunera joateko faktore garrantzitsua izaten dela. Euria badago Gaztegunea aukera ona da, baina eguraldi ona badago agian kalean gelditzeko joera handiagoa dela.
- Normalean kuadrillak mutik eta neskak separatuta ibiltzen dira herrian, nahiz eta salbuespenak egon. Hori nola ikusten duten galdetuta: ongi diote, mutil batzuen jarreragatik uste dute hobe ez badira neskekin elkartzen; eta gaizki iruditzen zaie, ulertuta berdinak direla guztiak eta elkarrekin ibili beharko liratekeela. Gainera, gero eta nagusiagoak egin orduan eta gehiago banatzen dira mutilak eta neskak. Gazteagotan elkarrekin ibiltzea ohikoagoa da.
- Abusuko Gaztetxokoa asteburuetan itxita egoten da, hala ere, elkarrizketatutako nerabeek uste dute ez luketela erabiliko beste plan batzuk burutzen dituztelako.

## **G. GAZTE LOKALAK ETA LONJAK**

- Nerabe eta gazteek lonjei ikusten dizkieten alde positiboen artean nabarmentzen dira, bertan nahi duzun bezala egon edo nahi duzuna egiteko aukera izatea, inork ezer aurpegiratu gabe. Espazio intimoa izatea, zuk nahi duzunarekin egoteko aukera ematen dizula. Eta, "askatasunaren" kontzeptua da gehien erabiltzen dena.
- Alde txarrei dagokionez, prezioan jartzen dute fokoa bereziki, baina baita ere, ardurak hartzera behartzen zaituela.
- Elkarrizketatu gazteenek ez dute lonjaren beharrik ikusten, nahiago dute Gaztegunera joan. Agian aurrerago bai, baina momentuz Gaztegunea da haien espazioa.
- 15 urte inguruko elkarrizketatuek ez daukate lonjarik baina nahiko lukete. Zaila ikusten dute prezioarengatik, eta guztia ordaintzeko batu beharrezko gazte kopuruagatik. Beste kuadrilla batzuekin espazioa elkarbanatzea ez dute ongi ikusten, mesfidantza sortzen die eta gatazkak egon daitezkeela aurreikusten dute.
- 16 urteko elkarrizketatuek Gaztegunea erabiltzeari aspaldi utzi zioten eta euria eta hotza egiten duenerako bereziki botatzen dute faltan lonja bat. Nahiko lukete baina momentuz ez daukate. Begiratu dituzte lokalak baina oso garestiak dira, gainera, ez daukate diru sarrerarik eta gurasoak egin beharko lirateke gastuen kargu. Beste gazte batzuekin lonja partekatzeko ideia aurrean

eragozpenak ikusten dituzte aukerak baino gehiago: adostasunetara iristeko arazoak, lapurretak... uste dute lonja batekin konfiantzazko gune bat bilatzen dutela gazteek, intimoa izango dena, eta hori beste batzuekin konpartitzearekin talka egiten du.